

MIKEL ETA BERE PILOTA BERRIA

Mikelek pilota berria du. Bere amamak oparitu dio pilota gorri berri hori. Parkera joan da pilotarekin jolastera eta han, Joseba lagunarekin egin du topo.

Elkarrekin egon dira jolasten goiz osoan Joseba eta Mikel eta ondoren etxera joan da. Etxean makarroiak tomatearekin bazkaldu ditu eta postre bezala txokolatezko tarta.



1. Nork oparitu dio pilota berria Mikeli?
 - a) Amama
 - b) Izeko
 - c) Aitite
2. Zein koloretakoa da pilota berria?
 - a) Morea
 - b) Urdina
 - c) Gorria
3. Nora joan da pilotarekin jolastera?
 - a) Basora
 - b) Futbol zelaira
 - c) Parkera
4. Norekin egin du topo parkean?
 - a) Martarekin
 - b) Josebarekin
 - c) Naiarekin
5. Zer bazkaldu du?
 - a) Makarroiak eta txokolatezko tarta.
 - b) Garbantzua eta sagarra.
 - c) Haragia eta jogurta.